



# ...eta **Kitto!**

EIBARKO EMAITZAK  
2016 - IX - 25



**EUSKO  
LEGE BILTZARRERAKO  
HAUTESKUNDEAK**



EAJ-PNVkoek lortutako emaitzak ospatu zituzten.

1.325 botoko aldea atera dio EH-Bilduri, 1.439 PSE-EERI eta 2.537 Podemos-i

## **EAJ-PNV askorengatik nagusitu da Eibarren**

EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK BEREZIAK DIRA, BESTE GUZTIAK DIREN BEZALAXE. Atzokoak erakutsi zuen, beste behin, eibartarrak gai direla botoa aldatzeko eta oso desberdin ikusten dutela Udalerako, Eusko Jaurlaritzarako, Madrilgo Kongresurako edo Europako Parlamenturako botoa ematea. Azken aldian Espainiako Kongresu eta Senaturako emaitzekin alderatuta, gurean bi horietan irabazi zuen Ahal Dugu oraingoan laugarren indarra izan da. Ez hori bakarrik, aldeak ere handiak izan direlako: EAJ-PNV, botoen %32rekin, 10 puntuko aldea kendu dio EH-Bilduri (%22) eta 11 puntukoa PSE-EERI (%21). Eta Elkarrekin Podemos-ek botoen %13 jaso du Eibarren, iazko abenduaren 20ko hauteskundeetan %25era iritsi zenean.

EAJ-PNV-k, 4.223 botorekin, azken aldian izan ditugun hauteskundeetako

### **Udal hauteskundeak izanez gero ZINEGOTZI KOPURUA**

**EAJ-PNV (7), EH-Bildu (5), PSE-EE (5), Ahal Dugu (3), PP (1)**

**Gaur egungo osaketa Udalean**

**PSE-EE (10), EH-Bildu (5), EAJ-PNV (5), Irabazi (1)**

emaitzak ia 1.000 bototan gairitu ditu (3.053 izan zituen ekainean eta 3.327 iazko abenduan), orain dela lau urteko emaitzetara bueltatzeko (orduan ere nagusitu zen, 4.250 botorekin, baina besteei orain baino tarte txikiagoa aterata). **EH-Bildu** bigarren indarra izan da gurean, 2.898 botorekin, azken hauteskundeetako jaitziera geraraziz eta ia 1.000 bototan gora eginez (1.913 izan zituen ekainean eta 2.376 iazko abenduan); hala ere, orain dela lau urte baino ia 1.000 boto gutxiago atera zituen atzo (orduan 3.839 lortu zituen). **PSE-EE** hirugarren indarra bilakatu da oraingoan, 2.784 botorekin, azken hauteskundeetako beheranzko joerarekin segituz (3.000 boto jaso zituen ekainean eta 3.144 iazko abenduan); hori bai, orain dela lau urtekoarekin alderatuta, ia 1.200 boto gutxiago jaso ditu oraingoan, orduko 3.954 botoetatik urrutit. **Elkarrekin Podemos** laugarren indarra izan da Eibarren estatu mailako aurreko bi hauteskundeetan nagusi izan eta gero. 1.686 boto lortu ditu Eusko Jaurlaritzako hauteskundeetarako indar berriak, oso urrutit orain dela hiru hilabete jasotako 3.950 botoetatik eta, zer esanik ez, iazko abenduan Eibarren aurkeztu zen lehen aldian bereganatutako 4.202 botoetatik. **PP**-k 940 boto eskuratu ditu eta, jakina, hau ere jaitzitu egin da azken hauteskundeetatik hona (1.363 lortu zituen ekainean eta 1.330 iazko abenduan) eta baita orain dela lau urte izandako kopurutik (orduan 1.150 boto jaso zituen). **Ciudadanos**-ek, azkenik, 157 boto besterik ez ditu eskuratu.

**bista eder**  
clínica dental - horts klinika

**Asko dira**  
gure horts-kliniketara etortzeko arrazoiak

**bista eder**  
clínica dental - horts klinika

Bista Eder, 19 - Bajo  
20600 **Eibar** / Tel: **943 70 00 82**

**innovadental** [Azpeitia]  
clínica dental - horts klinika

José de Artetxe, 5  
20730 **Azpeitia** / Tel: **943 02 59 55**



**20.000tik GORA PAZIENTE** ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT  
20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko arreta jaso dezazun

[www.innovadentalclinicas.com](http://www.innovadentalclinicas.com)



# BOTOA EMATERAKOAN

1.- Zelan ikusi duzu KANPAINA? 2.- Zelako EMAITZAK espero dituzue?



**LEIRE  
ABANZABALEGI**  
(EH-Bildu)

1.- Ilusio eta emozioz betetako kanpaina izan da. Bai mitin zein bestelako ekitaldietara jende asko gerturatu da eta, zentzu horretan, azken urteotako kanpainarik biziena izan dela uste dugu. Hautagai bat inhabilitatu digute, baina hiru hautagai berri ezagutzeko aukera izan dugu. Jende gazte asko ere gerturatu zaigu.


2.- Zaila izaten da asmatzea, batez ere Podemos parlamentuan sartuko delako. Kanpaina osoan jendearengandik jaso dugun babes handia ikusita, horrek emaitzetan islada izatea espero dugu eta, horrekin batera, parlamentua erabakitze eskubidearen aldeko portzentaje handi batez osatzea eta hori bihartik aurrera islatuta egotea.



**JULEN  
BOLLAIN**  
(Elkarrekin Podemos)

1.- Kanpaina ondo ikusi dugu, gu beti hasten gara gutxitik gehiagora joateko. Aurrekontu txikiena duen alderdia gara, hor ikusten da ez dugula nahi bankuekin zorretan egon. Kanpaina jendearekin egin dugu, guk ez dauzkagu 70.000 euro tranbia batean gastatzeko. Jendearekin eta ilusioarekin kanpaina egitea posible dela ikusi dugu.

2.- Emaitza onak espero dugu, ilusio handiz jardun dugu lanean eta hori hautetsontzietan islatzea espero dugu. Egia da hauteskunde orokor batzuetan, adibidez, ezberdin bozkatzten dela, baina guk uste dugu oraingoan Euskadik ezberdin bozkatuko duela orain lau urtekoarekin konparatuta.



**CRISTINA  
BAZ**  
(PP)

1.- Kanpaina ona egin dugula uste dut eta, beraz, herritarrek erantzun egokia ematea espero dugu. Diru-sarrerak Bermatzeko Errentarekin (DBE) egon den ustezko iruzurrari konponbidea ematea espero dugu eta, horrekin batera, Euskadiko jendearentzat ez ezik elkarbizitzarako, azpiegituretarako... hobekuntzak nahi ditugu.

2.- Ba, herritarrek euren babesa emanez gero, azken emaitzak errepikatzea nahiko genuke eta, posible balitz, orduko bozka kopurua gaitzera.



**JOSU  
MENDIKUTE**  
(EAJ-PNV)

1.- Iñigo Urkullu bere proposamenak plazaratzen zentratuta ikusi dugu berak "ideien kanpaina" deitu duen honetan. Gainontzeko alderdiak eztabaidetan EAJ lokatsetara eraman nahian ibili dira. Hor ikusi da EAJ-k datozen urteotarako herri honen lidergoarekin jarraitzeko jarrera duela eta gainontzekoek, berriz, oposizioa egitekoa.

2.- Balio duten benetako inkestak gaur iluntzean jakin go ditugu. Egin diren inkestei errespetu handiarekin begiratzen diegu, jendea erlajatu eta, emaitzak aurreikusten direlako, bere botoa ez dela erabakiorra izango pentsatzeko arriskua dagoelako. Jendeak nahi badu EAJ-k irabaztea botoa eman beharko du. Inkestek ez dute balio bestela.



**ENEKO  
ANDUEZA**  
(PSE-EE)

1.- Kanpaina ondo ikusi dugu, pozik gaude. Jendearengandik gertu egon gara, Eibarren egunero irten gara kalera eta jendearen berotasun eta elkartasuna sentitu dugu. Beraz, alde horretatik pozik gaude. Intentsitate handiko kanpaina izan da, ekitaldi askorekin, ez bakarrik Eibarren baita kanpoan ere, EAE mailan.

2.- Emaitzak gero ikusiko ditugu, baina guk ilusioz begiratzen diegu hauteskunde hauei. Ez dut esango emaitzak errepikatuko direnik, oraingoan alderdi berriak daude eta, baina hala ere eusteko esperantza daukagu.



APARTA, BERRIA, PRAKTIKOA eta GAURKOA

[emansl@emansl.es](mailto:emansl@emansl.es)

**EMAN CONSULTING, S.L.**

- **AHOLKULARITZA ETA CONSULTING:**  
- Laborala - Fiskala - Kontablea - Juridikoa
- **GIZA ERREKURTZOAK:** - Enpresako komenio eta hitzarmenak
- **PERTSONALAREN AUKERAKETA**

J. Etxeberria, 5 943 200 336 / 943 200 069 Fax: 943 200 342 **EIBAR**  
Marqués de Valdespina, 10 943 170 054 Fax: 943 176 901 **ERMUA**



**MAILAK TRUST. S.L.**

TRANSAKZIO INMOBILIARIOAK  
KOMUNITATEEN GESTIOA

- ETXE ETA LOKALEN SALEROSKETA
- ALOKAIRUAK
- BALORAZIOAK
- SUBENTZIOAK
- BANKU KREDITUAK
- TRASPASOAK
- PERITAJEAK
- KREDITU OFIZIALAK

J. Etxeberria, 5 (EIBAR) 943 200 336 / 943 208 778 Fax: 943 200 342  
Marqués de Valdespina, 10 (ERMUA) 943 170 451 Fax: 943 176 901



# HAUTESKUNDE EGOITZETAKO BOTUAK AUZORIK-AUZO


	EAJ-PNV	EH-Bildu	PSE-EE	Podemos	PP	Ciudadanos
<b>Amaña</b>	<b>242</b> (%21)	<b>152</b> (%13)	<b>440</b> (%38)	<b>161</b> (%14)	<b>105</b> (%9)	<b>15</b> (%1)
<b>Ipurua</b>	<b>452</b> (%30)	<b>394</b> (%26)	<b>357</b> (%23)	<b>172</b> (%11)	<b>99</b> (%6)	<b>14</b> (%1)
<b>Coliseoa</b>	<b>548</b> (%38)	<b>321</b> (%22)	<b>233</b> (%16)	<b>202</b> (%14)	<b>102</b> (%7)	<b>20</b> (%1)
<b>Gerontologikoa</b>	<b>113</b> (%24)	<b>119</b> (%25)	<b>108</b> (%23)	<b>65</b> (%14)	<b>48</b> (%10)	<b>4</b> (%1)
<b>San Andres</b>	<b>782</b> (%36)	<b>534</b> (%25)	<b>352</b> (%16)	<b>277</b> (%13)	<b>129</b> (%6)	<b>34</b> (%2)
<b>Udaletxea</b>	<b>960</b> (%36)	<b>652</b> (%25)	<b>458</b> (%17)	<b>312</b> (%12)	<b>176</b> (%7)	<b>25</b> (%1)
<b>Urki</b>	<b>315</b> (%23)	<b>257</b> (%19)	<b>397</b> (%29)	<b>231</b> (%17)	<b>97</b> (%7)	<b>14</b> (%1)
<b>Urkizu</b>	<b>811</b> (%36)	<b>469</b> (%21)	<b>439</b> (%19)	<b>266</b> (%12)	<b>184</b> (%8)	<b>31</b> (%1)
<b>Guztira</b>	<b>4.223</b> (%32)	<b>2.898</b> (%22)	<b>2.784</b> (%21)	<b>1.686</b> (%13)	<b>940</b> (%7)	<b>157</b> (%1)

**ZENTSOA:**  
21.400

**BOTO-EMAILEAK:**  
13.030

**PARTE-HARTZEA:**  
%60,89

**ABSTENTZIOA:**  
%39,11



## Hauteskunde guztiak ez dira berdinak eta jendea aspertu da botoa ematen

la %40ko abstentzia izan zen atzoko Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde egunean Eibarren. Orain dela lau urte baino bost puntu handiagoa eta gurean izan diren hauteskundeetan kopuru nabarmenena (beti ere, Europako hauteskundeak alde batera lagata).

Orain dela lau urte, aurreko Eusko Jaurlaritzarako hauteskundeetan, parte-hartzea %65,94koa izan zen, iazko udal-hauteskundeetan %62,27koa eta, azken aldian parte-hartze handiena izan dituen Espainiako Kongresu eta Senaturako hauteskundeetan, iazko abenduaren 20an, kopuru hori %70,36ra igo zen. Hori bai, aurtengo ekainean abstentzia berriro igo zen, oraingoan %34,92ra (%65,08k hartu zuen parte). Badirudi orain 2019ra arteko tartea izango dugula atsedean hartzeko, hau-

teskunde barik, beti ere Madrilen gertatzen denaren menpe.

Bestalde, alde handia dago udal-hauteskundeak izan edo beste mota batekoak izan eta, horrela, Udalerakoetan PSE-EE nagusitzen den moduan, Eusko Legebiltzarrerakoetan EAJ-PNVk lortzen du lehen postua. Espainiako Kongresu eta Senaturako, bestalde, Ahal Dugu-Podemos izan da indar bozkatuena.

Aurrekoek gain, gure herriko hauteslekuetako datuek adierazten dutenez, badira aldeak Eibarko auzo batzuen eta besteen artean botoa ematerakoan. Oraingoan, esaterako, hauteskundeotan nagusia izan den EAJ-PNV ia hautesleku guztietan nagusitu da, betidanik PSE-EE nagusitzen den Amaña eta Urki kenduta. Gerontologikoan EH-Bildu izan da bota-

tuena, EAJ-ri eta PSE-EEri alde txikia atera badie ere. Azken lau urteotako hauteskundeei erreparoa eginez, orduko hartan EAJ-PNV Coliseoan, San Andresen, Udaletxean eta Urkizun nagusitu zen, PSE-EE bozkatuena izan zen Amañan, Urkin eta Gerontologikoan eta EH-Bilduk irabazi zuen Ipuruan. Azken aldian izandako hauteskundeei erreparatuz (2015eko abendua / 2016ko ekaina) Amaña PSE-EEren eremua izaten jarraitu izan du, Urkin Ahal Dugu haren parera heldu izan da eta Gerontologi-koan PSE izan da bozkatuena. Ahal Dugu indartsu sartu izan da Ipuruan eta baita Urkizun ere. Eta EAJ-ren eremuak izan dira, batez ere, Coliseoa, San Andres eta Udaletxea. EH-Bildu, bestalde, bigarren indarra izan da hautesleku askotan.

J.L.G.

ARGITARATZAILEA:  
"...eta kittol!" Euskara Elkartea.  
Urkizu, 11 - solairuartea. 20600 Eibar.  
Telefonoak: 943-206776 / 943-200918.  
www.etakitto.eus

BABESLEA:  
Eibarko Udala

ADMINISTRAZIOA:  
Marisol Uriarte

LAN TALDEA:  
Ana Aizpurua, Maider Aranberri,  
Ihintza Fernandez, Julian Fernandez,  
Silbia Hernandez, Uxue Igarza,  
Ainara Labado eta Ainhoa Luz

ARGAZKIAK:  
Maialen Belaustegi eta  
Silbia Hernandez

DISEINUA / MAKETAZIOA:  
Jose Luis Gorostegi

PUBLIZITATEA:  
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

TIRADA:  
6.000 ale

BANAKETA:  
Arrate Espilla

INPRIMATEGIA:  
Gertu koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:  
"...eta kittol!"

LEGE-GORDAILUA:  
SS/430/92

ISSN:  
1132-1679

"...eta kittol!"-k ez du bere gain  
hartzeko aletan honetan adierazitako  
esanena eta iritzien erantzukizunik.

- SORMENA
- LAN TALDEA
- WEB GUNEAK
- KATALOGOAK
- IRUDI KORPORATIBOAK
- ENPRESAKO BIDEOAK
- ERROTULAZIOA
- ARGAZKIAK
- IRAGARKIAK
- PACKAGING-A

# 25

años de  
urte *Comunicación*  
*komunikazio* *Gráfica*  
*grafikoa* *Personalizada*  
*zure neurria*  
*egiten*

# EstiloGráfico

Desde 1990-etik

Bidebarrieta, 27 B - 20600 EIBAR  
Tel. 943 82 13 00  
[www.estilografico.com](http://www.estilografico.com)

GUZTIZ HORIZONTALA.  
OHE MOTA MOTOR  
BIKO BERTSIOAN



RELAX- POWER  
LIFT MAS SET  
KALEFAKZIOA

760 €

*Eskaintza berezia*

Zuk behar duzuna

# EIBAR sofás

**Karmen, 15**

943 531 261  
688 669 479

## EAJ-PNV (Eduardo Zubiaurre)

"Eibarko EAJ-PNVk eskerrak eman nahi dizkie alderdiari botoa eman dioten 4.223 lagunei. Hiru boto-emailetik batek EAJ-PNVrengan jarri du konfidantza. Euskaldunen ongizatearen eta Euskadik aurrera egitearen alde lanean jarraitzeko konpromisoa berresten dugu eta ardura hartzen dugu Eibarrek bere identitate-ikurrei eusteko: ekintzailtza, ondo egingo dako lana, bizikidetzeta eta ongizatea, datozen hauteskundeetan ere konfidantza hau berretsi dezaten"

## EH-Bildu (Igone Lamarain)

"Arreta galdu ditugun lau eserlekuetan jartzen badugu emaitza ez da ona, baina azken hilabeteotako ibilbideari begiratzen badiogu goranzko joera agerikoa da. Orain EAJren teitlatuan dago pilota, berak erabaki beharko du PSOErekin bat egiten jarraitu ala EH Bilduk egindako proposamenarekin bat egin eta bestelako gobernua osatu nahi duen. Eibarren bigarren indarra izan gara, herritarrek erakutsi digute gure proiektuarengan konfidantza berreskuratzen ari direla"

## PSE-EE (Arcadio Benitez)

"Botuetan gora egin duen bakarra Podemos da, aurretik aurkeztu ez delako. EAJk 2012an atera zituen 4.000tik gora botuei eutsi die. Guk 1.000 bototik gora galdu dugu eta Bilduk ere botuak galdu ditu, Podemosek lortu dituen 1.700 botuak hain zuzen ere. Udalerriko tarta ezkerreko hirugarren indar batekin elkarbanatu beharra dago eta logikoa da min gehien Bilduri eta PSE-EEri egitea. Hala ere, badirudi Podemos indarra galtzen ari dela"

## Podemos (Guillermo Manson)

"Aurrekoan baino okerrago joan zaigu, baina balio izan digu konprobatzeko geratzeko etorri garela. Gure alderdia jaio zenetik oso estresantea izan da dena, hauteskunde batetik bestera ibili gara. Orain lan egiteko denbora izango dugu eta horrek ilusioz betetzen gaitu. Eusko Legebiltzarrean 11 eserleku lortzea ez dago bat ere gaizki. Bi urtetako bizitza izanda, Euskal Herrian hirugarren indar politikoa izatea oso ondo dago"

## PP (Cristina Baz)


"EAE mailan, nahiz eta ordezkari bat galdu, lehengoari eusten diogula esango nuke. Ez dira emaitza txarrak gure ustez. Inkestek emaitza eskasak izango genituela aurreikusten bazuten ere, eustea lortu dugu. Gure bederatzi ordezkari horiek baliagarriak izan daitezke gobernua osatzeko eta geu entzuteko prest gaude. Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiet gure proiektuan konfidantza izan dutenengan eta irabazleei zorionak eman"



## GALIZIAKO HAUTESKUNDEAK

**ORAIN:** PP (41), En Marea (14), PSGa (14), BNG-Nos (6)

**Lehen:** PP (41), PSGa (18), PSE-EE (5), PP (3)



● EAJ-PNV ● EH Bildu ● PSE-EE/PSOE ● PP ● ELKARREKIN PODEMOS

## Eusko Legebiltzar BERRIA

Inkestek oraingoan ez dira hainbeste erratu eta akats nagusia aurrez iragarritako bigarren posturako lehian izanda, ez baita aurreikusitakorik bete, EH-Bildu erraz nagusitu zaiolako Elkarrekin Podemosi. Orain dela lau urtekoarekin alderatuta, EAJ-PNVk bi eserleku irabazi ditu Legebiltzarrean, EH-Bilduk lau galdu ditu eta gauza bera gertatu zaie PSE-EEri eta PP-ri (lehenak zazpi galdu ditu eta PP-k bat). Ciudadanos ez da ailegatu UPyDk zuen eserlekua lortzera.

Bi eibartar izango dira Eusko Legebiltzar berrian: JULEN BOLLAIN Elkarrekin Podemosen izenean eta ENEKO ANDUEZA PSE-EE ordezkatzen.

### ORAIN

**EAJ-PNV** ..... (29)  
**EH-Bildu**..... (17)  
**Podemos**..... (11)  
**PSE-EE** ..... (9)  
**PP** ..... (9)

### Lehen

**EAJ-PNV** ..... (27)  
**EH-Bildu**..... (21)  
**PSE-EE** ..... (16)  
**PP** ..... (10)  
**UPyD**..... (1)

### GIPUZKOAN

**ORAIN:** EAJ-PNV (9), EH-Bildu (8), Podemos (3), PSE-EE (3), PP (2)  
**Lehen:** EH-Bildu (9), EAJ-PNV (9), PSE-EE (5), PP (2)

### BIZKAIAN

**ORAIN:** EAJ-PNV (12), EH-Bildu (4), Podemos (4), PSE-EE (3), PP (2)  
**Lehen:** EAJ-PNV (11), EH-Bildu (6), PSE-EE (5), PP (3)

### ARABAN

**ORAIN:** EAJ-PNV (8), EH-Bildu (5), PP (5), Podemos (4), PSE-EE (3)  
**Lehen:** EAJ-PNV (7), EH-Bildu (6), PSE-EE (6), PP (5), UPyD (1)



**denolan, s.l.**  
 ENPRESA AHOLKULARITZA

Tfnoa: 943 741800 / Faxa: 943 741760  
 P. M. Urruzuno, 31 - behe (ELGOIBAR)

Tfnoa. (4 linea): 943 20 16 80  
 Faxa: 943 20 18 41  
 E-maila: denolan@denolan.es  
 Muzategi, 1 (EIBAR)



**ASEGURU ARTEKARITZA**

Muzategi, 1 (EIBAR)

Tfnoa: 943 20 16 80 Faxa: 943 20 18 41

# Larragest



Calbeton, 22-24

**INMOBILIARIA**  
 690 610 715

**ASEGURUAK**  
 943 200 795